

zeto Zugasti jaunak. Ondarrutar novelagille famatuaren inguruan ibilli ziran itz guztiak.

Ondarrun urtearen barrenean gauza geiago ere egin ziran: itzaldiak, ume euskaldunei sariak partitzea, Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia, teatro eta lore jokoak, Domingo Agirre-n gorazarretan literatura sariak emanaz.

RESURREZIO MARIA AZKUE JAIO ZALA EUN URTE

Lekeitio-n 1964 abuztuaren 9-an zenbait jai egin ziran Resurrezio Maria Azkue jaio zala eungarren urtea ospatzeko, bertako Ayuntamentuak prestatuta.

Euskaltzaindiko batzuek ere bertan izan ziran beste alkartade batzuetako jaunekin batean. Bilboko apezpiku Pablo Gurrupide jauna ere egon zan.

R. M. Azkue Euskal-Katedra berriaren bedeinkazioa egin zan. Los Rios-eko apezpiku Victor Garaigordobil jauna izan zan egin zuena. Bertako Ayuntamentuak sortua da Euskaltzaindiaren babesean jarririk.

Lekeitio-ko Ayuntamentuak Bizkaiko ta Nafarroako Diputazioen laguntasunarekin Azkue-n omenez ogetabost milla pezetako literatura sari bi sortu ditu. Lanak bialtzeko epea 1965 uztailaren 1-erarte ezta bukatzen. Gaiak Azkue lexikografo eta Azkue folklorista dira.

EUSKALZALEEN BILTZARRA LOYOLA-N

1964 abuztuaren 21, 22 eta 23-an Euskalzaleen Biltzar bat egin zan Loyola-n. Aita Jesuitak beren etxea eskeiñi zioten Euskaltzaindiari bildu ahal izateko. Aurretik gai nagusi bezela urrengo au zabaldu zan: "Euskal irakurleak geitzeko bideak. a) Euskera etxean; b) euskera eskolan; d) euskera radioan; e) euskera aldizkarietan; f) euskera gaurko liturjia berrian; g) euskera teatroan; h) irakurtzen asi berriak diranentzat literatura."

Aita Antonio Arana Loyola-ko Jesuiten nagusiak itzaldi labur bat egin zuen ongi etorria emanaz. Luis Mitxelena-k eskerrak eman zizkan bildutakoen izenean eta asi ziran berriketak. Izlariak bukatzen zuenean alkarrizketa sortzen zan nai zuen guztiak parte arturik txanda eskatu ondoren. Piarres Larzabal-ek teatroaz eta radioaz itz egin zuen. Aita Luis Villasante-k pedagogiaz, Anai Valentin Berriotxo-k lantxo bat bialdu zuen aurrei kaligafia irakasteaz. Aita Gaizka Barandiaran-ek lan bat bialdu zuen nola ematen dituen euskal eskolak Tudela-n. Aita Antonio Zavala-k lan bat bialdu zuen **Auspoa** liburu sortaz "Euskal irakurleak geitzeko bideak" saillean sartzen zalako. Aita Juan Goikoetxea-k itz egin zigun Azpeiti-ko gazteak zer egiten ari diran euskera eta euskal literaturari dagozkion gauzetan. Aita Angel Goenaga mintzatu zan egiten ari dan txisaz: "Filosofía de la lengua vasca". Aita Isidoro Basterrika beneditanoa liturjia berriaz. Manuel Lekuona-k itzulpen euskerara moldatu bat bialdu zuen esko-

Iako aurren jendabiziko irakurrialdietarako. Jose Maria Lojendio eta Aingeru Irigaray-k ere itzaldi bana egin zuten. Ibarrola andreak ipui batzuek kontatu zituen. Azkenengo egunean Jose Maria Iriondo radioaz mintzatu zan Loyola-koan dagoen partez. Antonio Labayen teatroaz. Gabriel Aresti eta Aita Jose Maria Altuna-k alkarrizketa bat egin zuten euskal ortografiaz. Batez ere h-aren gora behearak erabilili zituzten arrazoiak adieraziaz. Aita Angel Goenaga-k azken itz batzuek esan zituen eta Alfonso Irigoyen-ek batzarraren bukaeran artutako ondoren batzuek irakurri zituen. Aranburu apezpiku jaunak agurra egin zuen.

Ona emen ondoren-gisa esandako itzak:

1. Euskaltzaindiak atsegiñez beterik ikusten ditu Azpeiti-ko gazteak euskera eta euskal literaturaz egiten ari diran eta egin nai dituzten lanak. Beste zenbait erritan ere egiten dira gutxi gora behera antzeko gauzak. Bide auek zabaltzea asko komeni litzake eta Euskaltzaindiak alako joera oraindik ez tuten erriko gazteei eskatzen die beste ainbeste egin dezaten.

2. Euskaltzaindiak ikusten du euskal eskola ematen ari diranak lan bi-kaifia egiten dutela eta euskal texto egokiak osatzea komeni dala. Orretan aritu litezkeanai eskatzen zaie saia ditezela eta laguntasuna izango dutela ahal dan neurrian.

3. Euskal liturjia berria bere bidean badator ere, nola oraindik ezta-ki-gun zer egingo dan, gauza onetan zai eta erne egon bear degu apezpiku jaun-eseanai begira. Euskaltzaindiaren aldetik alegin guztiak egingo dira apezpiku jaunak euskera aintzat ar dezaten ahal danik geien.

4. Aita Antonio Zavala-ri aipamen berezi bat egiten zaio irakurle taldea Euskalerrrian praktikaz ugaritu duelako **Auspoa liburutegia** dala medio. Ahal danik laguntasun aundiena eman bear litzaioke gure aldetik aurrera segi de-zan. Gauza bera esan bear da **Zeruko Argia** astekariaz eta **Kulixka sorta**-z ere.

5. Euskaltzaindiak bere poza agertzen du batzarre auek Loyola-n egin ahal izateko bidea eman zaiolako eta gogora dakaz aurreko aita jesuita argi eta ospetsu izan ziran Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz, Olabide eta beste asko eta asko, eskerrak emanik Jesusen Konpafiari beti euskeraren alde era-kutsi duen beroagatik.

6. Euskerazko radioak, batez ere euskaldun asko irakurzale baiño entzun-za-le geiago dalako, lan aundia egin lezake izkuntza, literatura eta euskal kantak zabaltzeko, jendearen atsegiñerako ari diran bitartean. Eskerrak ematen zaizkie orainarte saiatu diranai.

7. Euskal teatroaz erri askotan egiten diran lanak txalotu bearrean gaude eta baita ere teatrozaleen artean alkartuta egin nai dana.

8. Ortografia ta erdiko literatura-izkuntzaz zabaltzen ari diran kezkak atsegiñez beterik ikusten ditu Euskaltzaindiak. Ortaz ahal danik geien saiatzea komeni da apurka apurka literaturaren usuarioak geroago ta baterago gerta ditezten, lege bezela aitortu ahal izan arte.